

[2018]

**CORTADA**

VITORIA-GASTEIZKO XXII FILM  
LABURREN JAIALDIA

XXII FESTIVAL DE CORTOMETRAJES  
DE VITORIA-GASTEIZ

**EHUSKARABANDA 2018 BIDEOMARATOIA**  
**BEREHALAKO FILM LABURREN LEHIAKETARAKO OINARRIAK**  
**2018ko azaroaren 8a. UPV/EHU. Vitoria-Gasteiz.**

---

1. Parte hartzaileak: Lehiaketan parte hartu ahalko dute nahi duten pertsona guztiek, baldin eta taldea bi lagunek, gutxienez, osatua badago.
2. Talde bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahalko du lehiaketan.
3. Film laburrak lehiaketa egingo den goizean filmatuko dira eta horien iraupena 2 minututik beherakoa izango da. Ez da onartuko lehenago filmatutako lanik. Talde bakoitzak bere baliabideak erabiliko ditu film laburrak filmatzeko.
4. Lehiaketa goizeko 09:00etan hasiko da. UPV/EHUko Arabako Campuseko unibertsitate pabiloiko kafetegian elkartuko gara, bertan emango baitzaio hasiera lehiaketari. Film laburrak euskarri digitalean entregatuko dira Pendrive batean, .mov edo .mp4 formatuetan (gehienez 100mb tamainakoa). Edozein gailu bidez filmatu ahal da, baita edozein gailuz filma muntatu ere. Film laburrak eta materialak egun bereko 14:30etan entregatuko dira unibertsitate pabiloian.
5. Gaiak: Lehiaketako gai bakarra UPV/EHUko Arabako Campuseko euskararen erabilera izango da. Lehiaketan euskara bakarrik onartuko da. Lanak Gasteizko edozein tokitan filmatu ahalko dira, baina planoren bat Arabako Campusean filmatu beharko da.
6. Gako hitz bat agertuko da lan guztietan: "Zientzia eta Unibertsitatea".
7. Nola apuntatu. Mezu elektronikoa bat bidali helbide honetara: [ehuskarabandabideomaratoia@gmail.com](mailto:ehuskarabandabideomaratoia@gmail.com). Izen-abizenak jarri, parte hartzaileen NANA eta harremanetan jartzeko telefono edo helbide elektronikoa bat. Izena emateko epea gaueko 12:00etan amaituko da urriaren 30ean, lehiaketaren bezperan.
8. Sariak. Deialdi honetan epaimahai batek hiru sari emango ditu. Lehengo saria: 100 euro + EHULabur2018 (parte-hartze), bigarrena eta hirugarrena: EHULabur2018 (parte-hartze).
9. Film laburrak lehiaketaren egun berean proiektatuko dira 19:00etan Bibat Museoan (Aitzogile Kalea, 54, Vitoria-Gasteiz). Emanaldiaren ostean lehiaketaren sari banaketa egingo da.
10. Lehiaketa honetan parte hartuz gero, oinarri hauek guztiak onartzen direla esan nahi du.

**EUKARABANDA-BIDEOMARATOIAren tel.: 609 226 448**  
**Helbide elektronikoa: [ehuskarabandabideomaratoia@gmail.com](mailto:ehuskarabandabideomaratoia@gmail.com)**  
**Webgunea: [www.festivalcortada.com](http://www.festivalcortada.com)**